AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3831

AGINDUA, 2014ko irailaren 1ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako karrerako funtzionario izendatzen dituena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko abuztuaren 20ko Aginduaren bidez (EHAA, 2013ko irailaren 5ekoa), Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako praktiketako funtzionario izendatu ziren hainbat hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak; hain zuzen ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan.

Aipatutako Aginduei jarraituz, praktikak gainditu dituzten aukeratutako hautagaiak karrerako funtzionario izendatzeari ekin zaio.

Horren ondorioz,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketakoko sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaia Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko karrerako funtzionario izendatzea, erabaki judizial bat betez; 2013-2014 ikasturtean praktikak bete eta gainditu ditu. I. eranskinean zerrendatzen da.

Bigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoetako karrerako funtzionario izendatzea, erabaki judizial bat betez; 2013-2014 ikasturtean praktikak bete eta gainditu dituzte. II. eranskinean zerrendatzen dira.

Hirugarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoetako karrerako funtzionario izendatzea. Horiek ikasturte akademiko batean praktika-aldia betetzeko legez atzerapen egoeran egon ondoren, aukeratuak izan ziren bi kidegoetatik batean. 2013-2014 ikasturtean praktikak bete eta gainditu dituzte. Horiek III. eranskinean zerrendatzen dira.

Laugarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoetako karrerako funtzionario izendatzea. Aipatu Aginduaren 13.4 oinarrian xedatutakoari jarraikiz, 2013-2014 ikasturtean

bigarren aldiz praktikak bete ondoren (2012-2013 ikasturtean praktikak ebaluatzeko bete beharreko gutxieneko denbora ez betetzeagatik edo ez gainditzeagatik), hautagai horiek praktikak gainditu dituzte. Horiek IV. eranskinean zerrendatzen dira.

Bosgarrena.– Agindu honen bidez izendatutako hautagaia eta I. eranskinean zerrendatzen dena, karrerako funtzionariotzat joko da, 2011ko irailaren 1etik aurrera.

Seigarrena.– Agindu honen bidez izendatutako hautagaiak eta II. eranskinean zerrendatzen direnak, karrerako funtzionariotzat joko dira, 2012ko irailaren 1etik aurrera.

Zazpigarrena.– Agindu honen bidez izendatutako hautagaiak eta III eta IV. eranskinetan zerrendatzen direnak, karrerako funtzionariotzat joko dira, 2014ko irailaren 1etik aurrera.

Zortzigarrena.– Agindu honen bidez izendatutako langilea jada Administrazioko beste Kidego bateko funtzionarioa baldin bada, bietako batean sartzea aukeratu beharko du, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasita hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 1a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

Kidegoa: **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak**
Espezialitatea: **Musika**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
72463538	Azurmendi	Jimeno	Maite	72463538 02A2410

II. ERANSKINA

Kidegoa: **Maisu-maistrak**
Espezialitatea: **Gorputz-hezkuntza**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
30682449	Ruiz	Villota	Asier	30682449 02A2409

Kidegoa: **Bigarren Hezkuntzako irakasleak**
Espezialitatea: **Geografia eta Historia**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
34101640	Alcalde	Olivares	Iñaki	34101640 68A2410

III. ERANSKINA

Kidegoa: **Lanbide Heziketako irakasle teknikoak**
Espezialitatea: **Gizartearentzako zerbitzuak**
Txanda: **Librea**

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
30631558	Blázquez	Martín	Fco. Javier	30631558 68A2411
30622229	Diego	Sangari	Leire	30622229 13A2411
30569073	Sojo	Gutiérrez	M.ª Eugenia	30569073 35A2411

Kidegoa: **Bigarren Hezkuntzako irakasleak**
Espezialitatea: **Interbentzio soziokomunitarioa**
Txanda: **Librea**

NAN.	IZEN DEITURAK			LEZ
30609000	Sinde	Carricajo	Begoña	30609000 24A2410

IV. ERANSKINA

Kidegoa: Maisu-maistrak
Espezialitatea: Lehen Hezkuntza
Txanda: Librea

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
72442653	Moreno	González	Virginia	72442653 35A2409

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako irakasleak
Espezialitatea: Gorputz-hezkuntza
Txanda: Librea

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
30677740	García	Hernando	Larraitz	30677740 24A2410

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako irakasleak
Espezialitatea: Interbentzio soziokomunitarioa
Txanda: Desgaitasuna

NAN	IZEN DEITURAK			LEZ
11914083	González	Cabello	María Victoria	11914083 68A2410